

Ekainaren 30eko 7/1981 LEGEA, "JAURLARITZAREN LEGEA"-ri buruz.

ZIOEN ADIERAZPENA

Euskal Herriko burujabetza-Erakundeak indarrean jartzeak zera eskatzen du, Autonomia-Estatutoan eta bereziki II Idazpuruko II Atalburuan aginduta dagoenaren arauera: Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren politikazko ihardutze-erakunde eta Arduralaritza artezten duen erakunde denezko eratze eta aginteei, Jaurlaritzako Lehendakariaren hautapen eta aginteei, eta Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren arteko harremanei buruzko legeak onartzea.

Honako lege honek eskakizun hoiei erantzutea du helburu, honako funtsezko irizpide hauek oinarri dituela:

Lehenengo eta behin, legegintza-erosotasunaren aldetikako arrazoiek Jaurlaritzari, bere egitura, aginte eta Legebiltzarrarekiko harremanei buruzko arazo guztiak lege bakar baten erabiltzea komenigarri egiten dute. Horrela, gainera, barne-egokitasun eta lege-argitasun haundiagoak lortzen dira gai horretan.

Bigarrenez, Autonomia-Estatutoaren II Idazpuruan egon eta legebiltzarbidezko eta, beraz, Legebiltzarraren aurrean erantzukizuna duen Eusko Jaurlaritza-eredu bat gauzaten duten politika-irizpideei erabat eusten zaie.

Alde horretarik, Jaurlaritzaren Legebiltzarrarekiko politikazko erantzukizuna eta haren beharrezko iraunkortasuna elkarri egokitzeko, gaitzespen eskea modu baikor batez araupetzen da, eske hori legebiltzarkideen seirenak egin eta Jaurlaritzako Lehendakari baten izena barne eraman dezala eskatuz, Legebiltzarrak, biltzarkideen erabateko gehiengoz gaitzespen-saloa onartzen badu Lehendakariagaia Lehendakari-izendatuta gelditzen dela.

Hirugarrenez, Legeak Lehendakariarekiko eta gainontzeko Jaurlaritzako eta Herri-Arduralaritzako goren karguekiko legebideak araupetzen ditu.

Horri buruz, Lehendakariari, Elkarte Autonomiadunaren goreneko ordezkari eta Eusko Jaurlaritzaren Buru denez zor zaion garrantzia ematen zaio, bere izendapena eta aginteak zehazki araupetuz eta bai, berarizkoetarako, bere egitekoez aldibaterako gabetu ahal izatea ere.

Gainontzeko Jaurlaritzakideei dagozkienetan, Legeak Jaurlaritzako Lehendakariorde bat edo bazuk egotea onartzen du, eta Sailburugoa ardatz agusitzat hartzen, Sailburuen izendapena, agineak eta erantzukizunak araupetuz.

Laugarrenez, Legeak Euskal Herriko Herri-Arduralaritzaren egituraren bide nagusiak ezartzen ditu.

Legeak, bukatzeko, berarizko legegintza ideak, aginte-eskuraketa eta arduralaritza erabakien egiterapena eta onarpena araupetzen ditu, egintza-agintaritzari dagozkienetan Legezko Erresumaren abiagune direnak legearen nagusitasuna eta Arduralaritzaren legearekiko, Zuzenarekiko eta epailaritzaren zaingoarekiko menpetasuna bera iz eta garbi aitortuz.

I IDAZPURUA

EUSKADIKO LEHENDAKARIAZ

I ATALBURUA

LEHENDAKARIAREKIKO LEGEBIDEEZ

Lehenengo Atala

Lehendakariak, Elkarte Autonomiadun gisa eraturako Euskal Herriaren goren-ordezkatza du, eta bai Erresumaren Elkarte horren lurretango agizkoa ere, eta Jaurlaritzaren Lehendakaritza eta artezkaritza bere ditu, Autonomia-Estatutoan, Lege honetan oharmandakoaren eta lege-antolaketako gainontzekoen arauera.

Bigarren. Atala

Honako hauek zor zaizkio Euskadiko Lehendakariari, bere karguaren indarrez:

- 1.– Jaun Gorena esan dakionekoa.
- 2.– Ezaugarri gisa Euskadiko ikurriña erabiltzekoa.
- 3.– Ofizialki jarri dedin egoitzan bere mailari dagozkion lanari, zerbitzu eta eskuarteekin bizi izatekoa.
- 4.– Bere goi-aginteari dagozkion sariak eta xahupideen ordainak Elkarte Autonomiadunaren Guztizko Diru-Egitamuen pentzutan eskuratzekoa.
- 5.– Horretan indarrean egon edo Elkarte Autonomiadunak gero ezarri dezanaren arauera bere agintearen duintasunaren indarrez zor zaizkion ohoreak egin dakizkionekoa.

3garren. Atala

Euskadiko Lehendakaritza herri nahiz norbanako-alorreko beste ezein kargurekin batera-ezina da, eta baita karrerazko ogibide eta merkataritza eta industria-lanekin ere, Eusko-Legebiltzarreko biltzarkidegoaz salbu.

II ATALBURUA

LEHENDAKARIAREN HAUTAPEN ETA IZENDAPENAZ

4garren. Atala

Lehendakaria Legebiltzarrak hautatutako du legebiltzarkideen artetik eta Erregek izendatuko, "Boletín Oficial del Estado"n eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Dekretoz.

5garren. Atala

- 1.– Eusko Legebiltzarraren Legegintza-aldi bakoitzaren hasieran, eta Lege honek oharmandako guztietan, Legebiltzarreko Lehendakariak Lehendakaria izendatzeko deia egingo dio Legebiltzarrari, Legebiltzarraren Araudian horretarako jarri dedin moduan.
- 2.– Legebiltzarrean ordezkariek dituzten Politika-Taldeek salozko hautagaiak edo hautagaiak, bilkura berean, bere jaurtze-egitasmo berezien guztizko bideak adierazi beharko dituzte Legebiltzarraren aurrean, hoietazko eztabaidaketari ekiten zaiola.
- 3.– Botoen erabateko gehiengoa izan dezan hautagaia Lehendakari izendatuta geldituko

da.

4.– Lehenengo boto-emanketan inork erabateko gehiengoa lortuko ez balu, beste boto-emanketa bat egingo da, eta hautagaietan boto gehien leukakena izendatuko Lehendakari.

5.– Legebiltzarrak Lehendakaria aukeratu ondoren, Legebiltzarreko Lehendakariak Erregeri jakinaraziko dio izendapena egin dezan.

6garren. Atala

Legebiltzarrari Lehendakaria hautatzeko deia egin ondoren hirurogei eguneko epea hautapen hori egin gabe igaro ondoren, Lehendakaritzan ari denak, zioen adierazpena egin dezan Dekretoaren bidez Legebiltzarraren ezabapena aldarrikatuko du, eta Elkarte Autonomiaduneko lur-eremu osoango hauteskunde nagusietarako deia egingo.

III ATALBURUA

LEHENDAKARIAREN AGINTE ETA ESKUBIDEEZ

7garren. Atala

Lehendakariak, Euskadiren goreneko ordezkotza duenez:

a) Euskal Herriaren ordezkotza du Erresumarekingo, gainontzeko Elkarte Autonomiadun edo Aurreautonomiadunekingo, Euskal Herriko Autonomia-Elkartea osatzen duten Kondaira Lurralde eta Udalekingo harremanetan.

b) Eusko Legebiltzarraren legeak aldarrikatzen ditu, eta bai Legegintza-Dekretoak ere, onartu eta gehienezko hamabost eguneko epearen barruan Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta "Boletín Oficial del Estado"-n argitaratzeko aginduz.

c) Legebiltzarra ezabatzen du, Jaurlaritzak eztabaidaketatu ondoren.

8garren. Atala

Lehendakariak, Jaurlaritzaren iharduna artezten du, eta horren ekintzak antolaketan, Sailburu bakoitzari bere ihardunean dagozkion esku eta artezko erantzukizunaren kaltetan gabe. Honako hauek dagozkio horretarako:

a) Jaurtze-Egitamua finkatzea.

b) Sailburuak izendatzea eta kentzea.

c) Jaurlaritza-Sailak sortzea edo ezabatzea dakarten Dekretoak ematea, herri-xahupideak gehitzea ekarri ez dezatenaren baldintzapean, eta bai Sailen aginte-eremuen banaketaren ezein aldaketa ere.

d) Legebiltzarrari, Jaurlaritzari eskatu diezaizkion argipide eta laguntzak ematea.

e) Legebiltzarrari, Jaurlaritzak aztertu ondoren, uste onaren adierazpenaren eskea egitea.

f) Aginte-eremuekiko Sailen arteko auziei aterapidea ematea, Sailburuek zuzenean elkar hartuta lortu ez denean.

g) Jaurlaritzaren bilkuretarako deia egitea, gai zerrenda ezartzea, bilkura-buru izan eta eztabaidaketak artezte.

h) Jaurlaritzako Batzorde eskudunen bilkuretarako deia egin eta, hala behar izanez gero, hoi buru izan eta hoi artezte.

i) Jaurlaritzaren legegintza-egitama antolaketetara.

j) Jaurlaritzaren lanak egoki eratzeko eta erabakikizunak tajuz gertatzeko behar daitezen barne-arauak.

k) Jaurlaritzaren eta Jaurlaritzako Batzordeen erabakiak egiteratu, eta hala behar izanez gero argitaratu daitezen arduratzea.

l) Kanpoan edo eri gertatutako Jaurlaritzakideen ordezkaketa erabakitzea.

m) Dekretoak izenpetzea, eta argitaratu daitezela agintzea.

n) Legeen arauera dagozkion beste ahalmen eta eskuak egiteratzea.

IV ATALBURUA

LEHENDAKARIAREN ALDIBATERAKO EDO ERABATEKO UZTE ETA ALDATZEAZ

LEHENENGO ZATIA

LEHENDAKARIAK ALDIBATERAKO UZTEAZ

9garren. Atala

1.– Jaurlaritzak, batzarkideen lau bostenak horretan bat datozela, bere nahiz Lehendakariaren arioz, hau behin-behingoan edo aldi baterako bere egitekoak betetzeko ezinean dagoela uste badu, Legebiltzarreko Lehendakariari jakinaraziko dio.

2.– Legebiltzarrari bere Lehendakariaren bidez egindako adierazpenak Jaurlaritzaren erabakia eramango du aldean, honek berebaitan, Lehendakari-baiteangoaren izena daramala, 14garren Atalaren lehenengo zenbakian oharmandako jarraikeraz, eta horren oinarri izan daitezen zio guztiak.

3.– Legebiltzarreko Lehendakariak, Atal hau hartaz ari deneko Jaurlaritzaren erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedila aginduko du, horren zio izandako zernolakoak egiaztatu ondoren.

4.– Lehendakariak Atal honetan aipatzen den erabakiaren zio izandako zernolakoak bukatu direla uste izanez gero, Jaurlaritzari jakinaraziko dio, eta horrek berrogeita zortzi orduko epearen barruan bildu beharko du horretaz ihardutzeko.

Jaurlaritzak Jaurlaritzakideen gehiengoz sendetsi ahal izango du Lehendakariaren sendakuntza. Hala gertatuz gero, erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, argitalpen-egunetikako indarra duela.

10garren. Atala

Aurreko Atalean aipatzen diren Bilkura-agirian edo agirietan honako hauek berariz erasoko dira: Bilkurakide guztiak, boto-emanketan edo emanketetan atera dena, eta bai

hartu dedin erabakiaren oinarri diren zioak ere.

11garren. Atala

1.– Lehendakaritzaren behin-behingotasunezko egoerak ezingo du, inola ere, lau hilabete baino gehiago iraun.

2.– Behin-behingoko Lehendakari-baitean ihardutzea dagokion Lehendakariordeak, edo hala egokituz gero Sailbumak, Lehendakariaren egitekoak izango ditu, 7garren Ataleko c) zatian eta 8garren Ataleko a), b) eta c) zatietan zehaztutakoak salbu. Lehendakari-baiteangoa gaitzespenadierazpenaren gai izan ahal izango da, eta hori aurrera atereaz gero berak Jaurlaritzak utzi beharra ekarriko du, baina ez gainantzeko Sailburuak berez eta besterik gabe kentzerik.

3.– Lehendakari-baiteango berria l4. 1 Atalean ezarritako moduan aukeratuko da.

BIGARREN ZATIA

LEHENDAKERIAREN ERABATEKO UZTEAZ ETA ALDATZEAZ

12garren. Atala

Aurreko Atalean jarritako etengabeko lau hilabeteko epea igaro eta Lege honen 9garren Atalak aipatzen dituen zioak iraun badiraute, ezindutako Lehendakariak bere tokia berehala utziko du.

13garren. Atala

1.– Lehendakariak, aurreko atalean ohartemandakoaz gainera, Legebiltzarrerako hauteskunde nagusiak egin ondoren, Lege honetan ohartemanda bezala Legebiltzarraren uste-ona galdu izanagatik, bere tokia utzi izanagatik edo hilda bukatuko du bere Lehendakaritza-aldia.

2.– Lehendakariaren Lehendakaritzaaldia bukatzeak, 5garren Atalak dionez Lehendakari berria hautatzeko aldia hasiaraziko du.

3.– Aurreko zatian agindutakoa hala izanik ere, uzten duen Jaurlaritzak bere ihardunean jarraituko du, berria bere aginteaz jabetu dedinerate, Arduralaritzaren behar bezalako lana eta aginte-eskuraketa egokia bermatzeko, utzaldia Lehendakariaren heriotzak edo ezinak balekar izan ezik, orduan hurrengo Atalean ohartematen den ordezkaketa egingo bait-da.

14garren. Atala

1.– Lehendakariaren ordezkaketa egin behar dedinetan, honako lehentasun-arau hauen ariora egingo da:

1) Lehenengo Lehendakariordea, hala egokituz gero.

2) Lehendakariordea, eta bat baino gehiago balego Jaurlaritzan etengabeango aldi luzeena daramana, eta alde horretatikako berdintasuna gertatuz gero zaharrena.

3) Hoiere ezean Sailburuak, aurreko zatian jarritako lehentasun-arauekin heurekin.

2.– Lehendakari-baiteangoak ezingo du uste onaren adierazpenaren eskerik egin ahal izan, ez gaitzespen-adierazpenaren gai izan ere, behin-behingo Lehendakariarentzat

11garren Ataleko 2garrenean oharmandakoa salbu.

Lehendakari-baiteangoak Lehendakariaren gainontzeko esku eta aginteak izango ditu, eta Eusko Legebiltzarrak izendatu dezan Lehendakari berria bere aginteaz jabetu dedinerarte jarraituko du bere ihardunean.

15garren. Atala

Lehendakariaren hilabete baino gehiagoko aldirako utzialdietarako, Legebiltzarrak aurrez baimena ematea beharrezkoa izango da.

II IDAZPURUA

JAURLARITZAZ

I ATALBURUA

JAURLARITZAREN OSATZE-MODUA ETA AGINTEPIDEAK

16garren. Atala

Jaurlaritza, bere Lehendakariaren buruzagitzapean guztizko politika-helburuak ezarri eta Euskal Herriko Arduralaritza artezten duen bateango ihardutze-erakundea da: Horretarako legegintza-arioa, egiterapen-iharduna eta arauak emateko ahalmena darabiltza, Autonomia-Estatutoak eta Legeak diotenez.

17garren. Atala

Jaurlaritza Lehendakariak eta Lehendakariak izendatutako Sailburuek osatzen dute; hoietatik, egoki eritziz gero, lehenengo Lehendakariorde bat eta Lehendakariorde bat edo batzuk izendatu ahal izango ditu.

2. Jaurlaritzan bi sexuek %40ko ordezkariak izango dute, gutxienez.

18garren. Atala

Honako hauek dagozkio Jaurlearitari:

a) Legebiltzarrera bidaltzeko Lege-Egitamauk onartzea edo hoiei atzera eragitea, Legebiltzarraren Araudiak ezarri ditzan modutan.

b) Legegintzarako eskua Legegintza-Dekretoen bidez egiteratzea, Lege honek ezarritako modu eta neurritan.

c) Eusko Legebiltzarretikako Legeak eginbideratzeko eta egiteratzeko Araudiak Dekretoz onartzea, eta baita Erresuma-Legeei dagozkienak ere Autonomia-Estatutoaren, eskuematearen edo aginte-eskuraketaren ondorioz agintea egiteratzea Elkartean Autonomiadunari dagokionean.

d) Herri-itaungetarako deietarako baimena ematea, Autonomia-Estatutoak eskatutako bide guztiak egin ondoren.

e) Elkartean Autonomiadunak Kondaira-Lurralde Forudunekin edo beste Elkartean Autonomiadunekin hoi berarizko agintepeko zerbitzuak eraentzeko eta emateko egin ditzan hitzarmenarako baimena ematea, edo hala badagokio onartzea. Hitzarmen hoi

Legebiltzarrari ezagutarazi beharko zaizkio, eta horrek hogeit hamar eguneko epearen barruan aurka egin ahal izango die.

f) Beste Elkarte Autonomiadun batzuekin lankidetzak-ituneak egitea; hoiak Legebiltzarrak sendetsi beharko ditu.

g) Jaurlaritzako Lehendakariak Legebiltzarrari aurrean jartzeko asmoa izan dezan Legebiltzarraren ezabapena edo usteon-adierazpenaren eskea eztabaidaketatzea.

h) Guztizko Diru-egitamuak egin eta Legebiltzarrari bidaltzea, aztertu eta hala baderitza onartu ditzan.

i) Erresumaren Segurantzak-indar eta Erakundeek eskuhartu dezateneko eta eskuhartzea bukatu dezateneko eskea egitea, Autonomia-Estatutoaren 17.6 a) atalak dion modu eta neurritan.

j) Euskal Herriko Arduralaritzako goi-mailako kargutarakoak izendatzea eta kentzea, dagokion Sailburuaren saloz, eta bai aukeran egiteko kargu-izendapenak ere, Lege honek hori eska dezanean.

k) Legearen arauera bere aurrera joan daitezkeen goradeiak erabakitzea.

l) Bere garrantzia edo zer-nolakoa dela eta Jaurlaritzak ezagutzea edo aztertzea eska dezaten arazo guztiez, eta Autonomia-Estatutoak eta Legeek eskuratzen dizkietenez arduratzea.

m) Lehendakariaren bitartez egiteratuko duen Autonomia-Hertzaingoaren goren-agintaritza.

n) Legebiltzarraren erabakiak egiteratuaraztea, hori beharrezko izan dedinean.

ñ) Autonomia-Elkartearen agintepeko herri-zerbitzuen eta Herri-erakunde eta enpresen eraentza zaintzea.

o) Autonomia-Elkartearen Ogasuntzaren Arduralaritza, Legeak jarritako mugen barruan.

p) Konstituziotasunik ezezko eta agintepide-auziei buruzko goradeiak aztertzea eta erabakitzea, doazkionean.

II ATALBURUA

JAURLARITZAREN IHARDUNAZ

19garren. Atala

Lehendakariak Sailburu bat Jaurlaritzako idazkari izendatuko du. Halaber, bere egitekoak betetzeko egiturak eta eskuarteak zehaztuko ditu.

20garren. Atala

1.— Jaurlaritzaren bilkuretarako deiak, Lehendakariaren oharpideen arauera moldatu eta Jaurlaritzako Idazkariak izenpetutako Gai-zerrenda eramango du aldean.

2.— Jaurlaritzaren bilkurek, baliozko izateko, Lehendakaria edo bere ordezkaria eta Jaurlaritzakideen erdiak gutxienez bertan izatea beharrezko izango dute.

3.– Bilkuran aurkeztu daitezten agiripaperak gordetzekoak eta isilpekoak izango dira, Jaurlaritzak berak agiriko egitea erabaki dezenerarte. Orobat Jaurlaritzaren bilkuretako eztabaidaketak ere, eta bertako kideek, nahiz eta jaurlaritzako izateari utzi, horri eutsi egin beharko diote.

4.– Jaurlaritzaren erabakiak, Idazkariak egingo duen bilkura-agirian erasoko dira.

21garren. Atala

Jaurlaritzaren bilkuretara, Lehendakariak bertan izatea eska dezan aituek joan ahal izango dute. Hoen egitekoa, joan izanaren zio izandako gaiei buruzko argipideak ematera mugatuko da, emandako argipideak isilpean gordetzera behartuta daudela.

22garren. Atala

1.– Jaurlaritzak Dekretoz, egiterapideen eta erabakien gertatze-lanak antolakidetzeko, alor-politika egitamutzeko, Sail batzuei doazkien arazoak aztertze eta Jaurlaritzaren bilkurak prestatzeko Batzorde eskudunak sortarazi ahal izango ditu.

2.– Jaurlaritzako Batzorde eskudun bat sortarazteko Dekretoa zio eta guztizkoa izango da. Honako xehetasun hauek izan beharko ditu barne, gutxienez:

a) Jaurlaritzako Lehendakariaren ordezkotza egin ahal izango duen Lehendakariorde edo Sailburua.

b) Gaia dela eta Batzordean ordezkariak dituzten Sailak.

c) Batzordearen egiteko eta lan-eremua, eta bai horren erabakiak lege-arauzteko modua ere.

3.– Lehendakariak edo, hala behar izanez gero ordezeko Lehendakariak egingo die B atzordeei bilkuretarako deia.

III IDAZPURUA

LEHENDAKARIORDEEZ, SAILBURUEZ, ETA EUSKAL HERRIKO ARDURALARITZAKO GOREN-KARGUEZ

I ATALBURUA

GUZTIZKO AGINTZAK

23garren. Atala

1.– Sailburuak bere tokiaz jabetu daitezten egunean ekiten zaizkio Elkartea Autonomiadunarekingo zerbitzu-harremanei.

2.– Izendapen-Dekretoan, zein Sailen Burugoa ematen zaion jarri beharko da, edo, Lehendakariorde bat edo aginte-alor berezirik gabeko Sailburu bat denean, oro har zer egiteko izango duenaren izendapena.

24garren. Atala

1.– Honako hauetan bukatzen dute Sailburuek bere ihardutze-aldia:

- a) Lehendakariak bere tokia uztea gertatutakoan.
- b) Legebiltzarraren usteona galdu izanaren indarrez, 49garren Atalean zehazten denaren arauera.
- c) Sailburuak bere tokia utziaz.
- d) Lehendakariak haren izendapena baliogabetzea erabakitakoan.
- e) Sailburua hilda.

2.– Nolanahi ere, Autonomia-Elkartearekingo zerbitzu-harremana, dagokion Dekretoak agertu dedin egunaz gero bukatzen da.

II ATALBURUA

LEHENDAKARIORDEEZ

25garren. Atala

1.– Lehendakariak, Jaurlaritzaburu denez dagokion erantzukizunaren kaltetan gabe, Lege honen 8garren Atalaren d), f), h), i), j) eta k) zatien gai diren egitekoetarako eskua eman ahal izango dio lehen Lehendakariari, Dekretoz.

2.– Gainontzeko Lehendakari-ordeei buruz, izendapen-Dekretroak flinkatuko ditu bakoitzaren egiteko eta ihardutze-eremuak.

III ATALBURUA

SAILBURUEZ

26garren. Atala

Batzordekide gisa dagozkien aginteen kaltetan gabe Sailburuek, bere Sailetako Buru direnez, honako eskubide hauek izango dituzte:

1.– Buru direneko Saileko ordezkotza, artezpena, iharduna eta ikerpena, legez emanda euki dezaten aginte-eremuan.

2.– Jaurlaritzako Lehendakariari bere Sailaren egitura eta erakundetzaren saloa egitea, onarpena eman diezaion.

3.– Jaurlaritzari bere Sailari dagozkion gaietako buruzko Dekretoen saloak egitea, onartu ditzan.

4.– Bere Sailari dagozkion gaietan guztizko ardularitza-aginduak eta erabakiak ematea.

5.– Bere Saileko ihardutze-sail edo agintarien erabakien aurka ardularitza-abidetik sar daitezten goradeiak erabakitzea, legeek besterik agindutakoetan salbu, eta bai bere Saileko ihardutze-erakunde eta agintarien eskubideen artean sor daitezten auziei aterapidea ematea ere.

6.– Dekretoz izendatu beharreko bere Saileko karguetarako izendapenen eta kentzeen saloa Jaurlaritzari egitea.

7.– Indarrean dauden legeek ematen dizkieten eskubide guztiak egiteratzea eta, bereziki, haietarako izendapena izan dueneko Jaurlaritzako Batzordeetan berenez eskuhartzea.

8.– Bere aginte-eremuko gaiei dagozkion Lege-Saloak Jaurlaritzari egitea.

27garren. Atala

1.– Sailburuez gainera, Sail berezirik gabeko Kontseilariak ere izendatu ahal izango dira.

2.– Sailik gabeko Kontseilari bat izendatu dedinean, Lehendakaritzak horren egitekoak eta egiteko horrek betetzeko laguntza-sailak zehazuko ditu.

3.– Sailik gabeko Kontseilariak bere tokia uzteak karguaren deuseztapena ekarriko du.

IV ATALBURUA

ARDURALARITZAKO GOREN-KARGUEZ

28garren. Atala

1.– Sailburuek, Diru-egitامuan horretarako dauden diru-izendapenen barruan, bere konfiantzazko lanariak izendatzeko eskua dute.

2.– Konfiantzazko lanari hoiak, Sailburuak bere tokia utzitzeaz batera eta besterik gabe tokia utzita geldituko dira.

29garren. Atala

Dekretoz izendatu eta Elkarre Autonomiadunari zerbitzu-harremanez atxikita dauden Sailburuorde eta Artekariak dira Arduralaritzako gorenkargu. Harreman hori izendapen-Dekretoaz hasten da, eta dagokion Dekretoak argitaratu dedin egunetikako indarra duen kentze edo uzteaz bukatzen.

30garren. Atala

Sailburuordeak, dagokion Saileko-Sailburuaren Artekariatzapean, Sailaren sortarazte edo ihardutze-egiturapenerako Dekretoak eman eta Sailburuak eskura diezaizkion egiteko eta aginteen artekariatza eta egiterapena beretzakotzen ditu.

31garren. Atala

1.– Artekariak Ihardutze-Atal baten artekariatza beretzakotzen dute, Sailaren Ihardutze-Erakundetza finkatu dezan Dekretoak ezarritako modu eta neurritan.

2.– Halaber, eta Legeak dionaren arauera, Ihardutze-Erakunde Burujabe bateko lehendakaritza edo Artekariatza beretzakotu ahal izango dute.

V ATALBURUA

JAURLARITZAKIDEEKIKO ETA ARDURALARITZAKO GOREN KARGUEKIKO LEGEBIDEAK

32garren. Atala

Euskal Herriko Arduralaritzako goren-kargu direnez, Sailburu, Sailburuorde eta Artekari

izatea honako hauekin bateraezinekoa da:

1.– Gorte Nagusietan parlamentan gisa edo Erresumako Gobernu edo Arduralaritzako ihardutze-sail edo erakundetan herri-egitekoetan ihardutzearekin eta Ahalduen Nagusi, Foru-Diputadu eta Autonomia-Elkartearen barruko berrogeita hamar mila biztanletik gorako hiriren bateko alkate izatearekin. Sailburuordegoa edo Artezkarigoa ezingo dira Eusko Legebiltzarkide izatearekin batera egin.

2.– Sindikaritzak-erakunde, lanbide-elkarte eta gainontzeko ogipide-erakunde, bazkun, irakunde eta horrelako ezein erakundetan aholkularitza, urgazlaritza, artezkaritza eta ardularitza-lanetan aritzearekin.

Elkartuezin honek ez ditu hartzen atal hau doakienek bere kargua dela eta egin beharreko egitekoak, ez esandako erakunde-moeta hoietako baten, ez ihardutze sail burujabeetan, hoiere eratzemodua dena dela, ez herri-ogasuntzak eskuhartzen dueneko merkataritza-bazkunetan ere. Elkartuezineko ez direnetan kargua dela eta egin beharreko egitekoa irabazpide balitz, saria ordaintzen duenak Elkartea, Autonomiadunaren herri ogasunean sartuko du, artez eta oso-osorik.

Bakoitzean gertatzen diren xehetasunez jabetu ondoren, Jaurlaritzak erabakiko du, bakoitzean, zati honetan oharremandako elkartuezinenaren menpe dagoen ala ez.

3.– Herri edo merkataritza-alorreko norbanako legepeko ezein enpresa, erakunde eta bazku-motetango azterkaritza, ordezkatzeko, urgazlaritza edo lanbide hutsezko egitekoak betetzearekin.

4.– Ezein ogibide nahiz merkataritzalanekin, saririk gabekoa bada ere.

34garren. Atala

1.– Jaurlaritzak, izendatu daitezenean Gizarte Segurantzaz sartu gabe dauden Sailburu, Sailburuorde eta Artezkarientzat, eta bai hoietan sartuta egotea edo bazkide izatea zekarkien lana utzi dutenentzat ere dagokien Gizarte-Segurantzako Arartekaritzak-Erakundearekin edo bidezko den Lagunaroarekiko hitzarmena egingo du, Gizarte Segurantzaz eta bakoitzaren Lagunaroan bazkide izaten jarraitu ahal dezaten.

2.– Orobat egingo du Jaurlaritzak kargu hoiek bateraezinagatik lana aldi baterako uztea eskatu behar duten herri-lanariek hartu ditzatenean ere.

3.– Ituneko eraentzapidez zor eta Sailburuei, Sailburuordeei eta Artezkariei dagozkien bazkide-sariak heuren berenez ordainduko dituzte, eta bere lansariak ordaindu dakizkienean kenduko zaizkie.

36garren. Atala

Jaurlaritzakideek eta Arduralaritzako gorenkarguek ezingo dute bere kargua dela eta heuren, bere emazteei edo bigarren mailarainoko ahaideei egindako erregaliarik hartu.

38. artikulua

1.– Biziarteko pentsioa jasotzeko eskubidea edukiko dute honako pertsona hauek:

a) 1936ko urritik 1979ko abenduaren 15era bitartean Eusko Jaurlaritzako lehendakari izan zenak eta hartako kide izan ziren sailburuek.

- b) Iraungitako Eusko Kontseilu Nagusiko lehendakariak eta sailburuak.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko jaurlaritzetako lehendakariak.
- d) Aurreko idatz-zatietan aipatutako pertsonen alargun, zurtz eta gurasoak.

2.– Biziarteko pentsioa jasotzeko eskubidea edukiko dute aurreko paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan sartutako pertsonak, baldin eta erretiro-egoeran sartzeko legez aurreikusitako adinera iritsi badira; c) idatz-zatian sartutakoei dagokienez, aurreko baldintzaz gainera eskatuko zaie gutxienez bi urte egin izana Autonomia Erkidegoaren zerbitzuan.

3.– Halaber, biziarteko pentsioa jasotzeko eskubidea edukiko dute aurreko 1. paragrafoko a), b) eta c) idatz-zatietan aipatutako pertsonak, zein ere den zerbitzuan egindako denbora eta nahiz eta iritsi gabe egon legez ezarritako erretiro-adinera, baldin eta fisikoki edo mentalki ezinduak gelditzen badira istripuagatik edo karguaren arrisku espezifikoagatik.

4.– Pentsioen zenbatekoak honako hauek izango dira:

a) Aurreko 2. paragrafoan aurreikusitako kasuan, pentsioa izango da eskubidea sortu zuen onuradunaren karguari dagozkion kontzeptu guztiengatik ateratzen den urteko soldataren ehuneko berrogeita hamar.

b) Aurreko 3. paragrafoan aurreikusitako kasuan, pentsioa izango da aipatutako kargu horiei ezintasunaren kausa gertatzeko unean ordaintzen zaien urteko soldataren ehuneko ehun. Ehuneko ehuneko kopuru bera edukiko du alarguntasun-pentsioak kasu honetan.

c) Artikulu honetan 1. paragrafoko a), b) eta c) idatz-zatietan aipatutako pertsonak jardueran daudela hiltzen baldin badira, pentsio-eskubidea edukiko dute ordena honetan: lehenengo, alargunek; bigarren, seme-alaba adingabeek edo adindun ezinduek. Gurasoek eskubidea lortuko dute baldin eta seme edo alabaren menpe badaude ekonomikoki eta beste diru-sarrerarik jasotzen ez badute. Irizpide bera aplikatuko da artikulu honetako 2. paragrafoan aurreikusitako pentsioa jasotzen delarik gertatzen baldin bada heriotza.

5.– Artikulu honetan 2. eta 3. paragrafoetan aurreikusitako egoeretan jaso daitezkeen pentsioak bateraezinak dira diru-sarrerak jasotzearekin edozein aginte parlamentariotan aritzeagatik, Estatuko edo Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzako kide edo Administrazio publikoko goi-kargudun izateagatik, edo foru-lurralde historikoetan edo udaletan beste edozein kargu publiko edo izendapen askeko, ordaindua, betetzeagatik. Inguruabar horietakoren bat gertatzen baldin bada, ukituak ordainsarrietatik altuena hautatu ahal izango du.

6.– Artikulu honek hizpide dituen pentsioen onuradunek eskubidea daukatenean beste pentsio bat jasotzeko Gizarte Segurantzaren funtsen kargura, soilik edukiko dute eskubidea Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura diferentzia jasotzeko baldin eta Gizarte Segurantzaren pentsioa txikiagoa bada.

7.– Artikulu honetan aipatzen diren pentsioak erreferentziako soldaten proportzio berean aldatuko dira.

IV IDAZPURUA

AGINTEEKIKO ESKUEMATEEZ

39garren. Atala

1.– 7garren Ataleko c) eta d) zatietan, 9garreneko a), b) c), e), g), l) eta m)-tan eta 18garrenean aitortutako agintzak inori utzi ezinekoak dira, ardulararitza-maila soil soilekoak salbu. Hala ere Lehendakariak, gaisorik edo kanpoan gertatuz gero, 8garren Ataleko g) eta m) zatietan aitortzen zaizkion agintepideekiko esku-ematea egin ahal izango du.

2.– Eusko Jaurlaritzak bere Ardulararitza-aginteak Jaurtze-Batzordeei utzi ahal izango dizkie.

3.– Jaurlaritzako Lehendakariaren ardulararitzazko aginteak Lehendakaritza Sailburuari utzi dakizkioke.

4.– Sailburuek, aginte-mailaz menpeko zaizkien ihardutze-sailen edo bere Sailaren menpeko ihardutze-erakundeen esku utzi ahal izango dute bere aginteen egiterapena. Jaurlaritzakide direnez Sailburuei aitortutako egitekoak eta 26garren Ataleko 2, 3, 4, 5 (aginte-eremuekiko berebaitango auziak erabakitzekoa salbu), 6 eta 8 idazataletan ezarritakoak inori utzi ezinezkoak izango dira.

40garren. Atala

1.– Esku-ematea, gertakari ofizialetan ordezkotza egitekoa denean salbu, Dekretoz edo Aginduz egin beharko da, aldian aldikoari dagokionez eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedineko egunaz gero izango du indarra. Indargabetzea modu berdinean egin beharko da.

2.– Esku-ematearen gai izandako agintearen egiterapenak ardurapekoekiko artezko eragina izan dezanean, Dekreto edo Aginduak eskuemate hori zehazten duen arauaren edo arauen berarizko izendapena egin beharko da.

3.– Ezingo da esku-ematearen gai izandako agintea bigarrenetako esku-emate baten gai izan.

4.– Eskua emandakoen egintzak, ihardutze-sail esku-emaileak berenez egindakotzak joko dira.

41garren. Atala

Lehendakariaren aginteen esku-ematea beti aldi baterakoa izango da, lehendakariak esku-emate hori noiz-nahi indargabetu dezakela.

42garren. Atala

Sailburuen aginteen esku-emateak beti ere gehienera hamabi hilabeteko aldi baterako izango dira, noiznahi indargabetu daitezkeela.

Nolanahi ere, epe hori bukatu ondoren eskuematearen zio izandakoek irauin baliraute, Sailaren ihardutze-atal eta ihardutze-moduak antolatzen dituen araua aldatu egin beharko da, agintea ordurarte ordezkotza gisa zerabilen ihardutze-sailari beretzat emanaz.

V IDAZPURUA

JAURLARITZAREN ETA LEGEBILTZARRAREN ARTEKO HARREMANAK

I ATALBURUA

GUZTIZKO AGINTZAK

43garren. Atala

Legebiltzarraren urteko agizko lehenengo bilkuraldietatik lehenbiziko Osoko Bilkuran Jaurlaritzak, Lehendakariaren bitartez, bere guztizko politikaren adierazpen bat egingo du; ondoren eztabaidaketa bat izango da, inolako boto-ematerik gabe.

44garren. Atala

Jaurlaritzak eta Jaurlaritzakideek, Legebiltzarreko Araudiak honetzaz agindu dezanaren kaltetan gabe, honako hauek egin beharko dituzte:

1.– Legebiltzarrak eska dezanean bertan agertzea.

2.– Legebiltzarraren Araudiak ezarri dezan moduan, Legebiltzarrak egin diezaizkion eskabideei, erantzun-eskeei, itaunei eta adierazpenei erantzutea.

3.– Legebiltzarrari Jaurlaritzagandik, Jaurlaritzakideegandik, eta Ihardutze-Sail Burujabeen eta Herri-enpresen erantzukizuna duen Autonomia-Elkarteko ezein Agintari edo Herrilanaigandik behar ditzan argipideak eta laguntzak ematea.

4.– Jaurlaritzakideek, Legebiltzarraren bilkuretara joateko eta bertan hitza egiteko eskubidea dute. Bere Saitetako goren-kargu eta Herrilanaiek Legebiltzar-Batzordeei argipideak eman diezazkieteneko eskea egin ahal izango dute.

II ATALBURUA

JAURLARITZAREN ERANTZUKIZUNAK

45garren. Atala

Jaurlaritzak, Sailburu bakoitzak bere ihardunagatik duen artezko erantzukizunaren kaltetan gabe, Legebiltzarraren aurrean batean erantzuten du, Autonomia-Estatutoak eta Lege honek ezarritako modutan.

46garren. Atala

Lehendakariak, Jaurlaritzak aztertu ondoren, bere jaurtze-egitamuarekiko eta guztizko politika adierazpen batekiko usteona eskatu ahal izango dio Legebiltzarrari. Usteona emandakotzat joko da Legebiltzarkideen gehiengo soilak aldeko botoa eman diezaionean.

47garren. Atala

1.– Legebiltzarrak Jaurlaritzari bere erantzukizuna eskatu ahal izango dio, gaitzespen-adierazpena erabateko gehiengoz onartuz.

2.– Legebiltzarkideen seirenak gutxienez egin beharko du gaitzespen-adierazpenaren saloa, eta, honek, bere jaurtze-egitamuaren guztizko bideak agertu beharko dituen Lehendakari baten izena eraman beharko du berebaitan.

3.– Gaitzespen-adierazpena ezingo da aurkeztu eta bost egun igaro baino lehen bototara jarri. Epe horren bi lehenengo egunetan, ordezkoko-asmotango adierazpenak aurkeztu ahal izango dira.

4.– Legebiltzarkideen erabateko gehiengoak gaitzespen-adierazpena onartzen ez badu, hori izenpetu dutenek ezingo dute besterik aurkeztu urte bereko bi bilkura-aldietan.

48garren. Atala

1.– Legebiltzarrak 46garren Atalean zehaztutako modutan Lehendakariari bere usteona ukatuko balio, Lehendakariak bere tokia utzi egino du, eta Lehendakari berria aukeratuko da.

2.– Halaber, Legebiltzarrak gaitzeste-adierazpen bat onartzen badu, Lehendakariak bere tokia utzi, eta gaitzespen-adierazpenak berabaitan daraman hautagaia Legebiltzarrak aukeratutakotzat joko da, Erregek izendatu dezan.

49garren. Atala

1.– Legebiltzarrak, Lehendakariordeari, esku-ematez dituen aginteeikiko erantzukizuna eskatu ahal izango dio. Hori egitekotan, hautagai baten saloa ez da beharrezkoa izango, eta gaitzespen-adierazpenak irabazi dezan Legebiltzarrean erabateko gehiengoa izan beharko du. Hori gertatuz gero, Lehendakariari tokia utzi ahal izateko eskea egingo dio, eta Lehendakariak haren ordezkotzat jarriko du.

2.– Halaber, Sailburu batek bere aginte-eremuan duen artezko erantzukizuna ere haztatu ahal izango du, aurreko lerroaldian jarritako baldintza eta ondorioekin gaitzespen-adierazpen bat onartuta.

III ATALBURUA

LEGEBILTZARRAREN EZABAPENAZ

50garren. Atala

Lehendakariak, bere kabuz eta Jaurlaritzak aztertu ondoren, Legebiltzarra ezabatu ahal izango du, 47garren Atalak dionezko gaitzespenadierazpenen bat bere bideak egiten ari ez dedineko baldintzapean, boto-ematea egin ez dedin artean.

51garren. Atala

Deuseztapen-Dekretoak hauteskunde berrietarako deiaren eguna eta hauteskunde berriak egitekoa zehaztu beharko ditu, indarrean dauden legeen arauera.

VI IDAZPURUA

LEGEGINTZA-DEKRETOEZ

52garren. Atala

1.– Eusko Legebiltzarrak legemilako arauak emateko ahalmena eskuratu ahal izango dio Jaurlaritzari, honako salbuespen hauekin:

- a) Oinarrizko eskubideei eta herriareipideei dagozkionak.
- b) Jaurlaritzaren oinarrizko erakundetzari edo Euskal Herriko ardularitzaren legeko jaurpideari dagozkionak.
- c) Elkarte Autonomiadunaren eta Kondaira-Lurraldean arteko guztizko jaurpideak onar ditzatenak.

d) Hauteskundeekiko guztizko legeak araupetu ditzatenak, Autonomia-Estatutoaren 37garren Atalean ezarritakoaren kaltetan gabe.

e) Iraspen-alorreko izanagatik onartzeko erabateko gehiengoa behar dezaketen arau guztiak.

2.– Legegintzarako esku-ematea, atalkako agintzak gertatzeko xedezkoa denean Oinarri-Lege baten bidez egin beharko da, eta lege batzuk biltzekoa denean agizko Lege baten bidez. Bietan, Legebiltzarraren erabakiak legegintzarako gaitasunaren aldi zehaztuko du.

3.– Oinarri-Legeak, legegintzarako esku-ematearen xedeak eta mugak, eta egiteratzerakoan erabili beharko diren oinarri eta irizpideak zehatz-mehatz mugatuko ditu.

4.– Legeak batean biltzeko eskuemateak, esku-emate horri ematen zaion araugintza-eremua zedarrarituko du, idazkera bakar bat gauzatzera mugatzen den edo batean bildu behar diren legeen idazkera arauzkotzea, argitzea eta elkarri egokitzea ere hartzen dituen zehaztuz.

5.– Jaurlaritzak, legegintza-ahalmenaz baliatu eta berehala, Legebiltzarrari horretazko adierazpena egingo dio, esku-ematearen gai zen atalkako edo batean biltzeko idazkera barne daramatzala.

6.– Legebiltzarreko Mahaiak, Jaurlaritzak bidalitako idazkerak bere bideak Osoko Bilkuraren aurreango irakurketaz, eztabaidaketaz eta osoarekiko boto-emanketaz egin dezala aginduko du.

VII IDAZPURUA

GUZTIZKO IRIZPIDEAK

I ATALBURUA

OINARRIAK

53garren. Atala

Euskal Herriko Elkarte Autonomiaduneko Ardulararitza, aginte-mailaz antolatutako ihardutze-sailez eratuta, legezko nortasun bakarrez ari da bere egitekoak betetzeko, eta aurre-iritzirik eza, argitasuna, eginkortasuna, erdikoiteriarik eza, agintepide-banaketa eta bere ihardutze-sailen erakidetasuna, eta hala behar dedinetan Kondaira-Lurraldeetakoekingoa izango ditu bere egintzen oinarri.

54garren. Atala

Epailaritzak zaintzen ditu ardulararitza-ihardunaren arauzko-ahalmena eta legetasuna, eta bai ardulararitza-ihardunaren bere dituen helburuekiko egokitasuna ere.

II ATALBURUA

LEGE-EGITASMORAKOAK ETA ARAUPIDEAK GERTATZEKO MODUAZ

55garren. Atala

Jaurlaritzari aurkeztutako Lege-Egitasmotarakoek bere zioen adierazpena eramango

dute, haiek gertatzearen iturri izandakoak eta dituzten xedeak haundi-haundizka adieraziz. Hala behar dedinean, indargabetutako edo aldatutako agintzen zerrenda eraskin gisa joango da.

56garren. Atala

1.– Jaurlaritzak, Aholku Batzorde Juridikoari igorri behar zaizkion lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak egiteko hasierako fasean, xedapenaren testua bakarrik igorriko dio Eusko Legebiltzarrari, behin prozedura hasteko agindua eman duen organoaren alde aurreko onespena izanda.

2.– Era berean, Aholku Batzorde Juridikoari igortzen zaion dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrari ere igorriko zaio, legebiltzar-taldeek dokumentazio hori ezagut dezaten.

3.– Jaurlaritzak erabaki beharrezko Lege-Egitasmotarakoak eta Dekreto-Egitamuak Jaurlaritzako Idazkariari bidaliko zaizkio, banatu ditzan. Doazkien Sailek Jaurlaritzak berak ezarritako moduan idazkiek diotenarekiko onarpena adierazi dezatenean, Gai-zerrendan sartuko dira. Bat etorri ez edo baldintzaren batekin bat badatoz, Lehendakariari dagokio arazo hori Batzarrak aztertzeko gaietan sartu edo ez sartu erabakitzea.

57garren. Atala

1.– Eusko Legebiltzarrari aurkeztzen zaizkion lege-proiektuekin batera, Aholku Batzorde Juridikoaren txostena ere igorriko da eta, halakorik bada, txosten horretara egokitzeko oroitidazkia.

2.– Lege-Egitasmoen Diruegitamurako zorpideren bat badario horrentzako dirubideei buruzko eraskin bat eraman beharko du eta, hori, Legebiltzarraren Araudiak Lege-Egitasmoen buruz agindu dezanez eztabaidatuko eta bototara jarriko da.

58garren. Atala

Legebiltzarrari aurkeztutako Lege-Egitasmoek Legebiltzarreko gai-zerrendan sartzeko lehentasuna izango dute, Autonomia-Estatutoaren 27.4 Atalean oharmandako herriaritzakoak salbu. Hori guzti hori, Legebiltzarraren edo Kondaira-Lurraldeetako Erakundeen legegintza-arioaren egiterapenaren kaltetan gabe, eta lege-egitasmoen aitortutako lehentasun horrek legebiltzarkideek Legebiltzarreko barne-Araudiak ezarritako modutan zuzenketak egiteko duten eskubidea ezertan ere murriztu gabe.

III ATALBURUA

ARAUGINTZA-AHALMENAZ

59garren. Atala

Araugintza-ahalmena erabiltzea honako arau-mailaketa honi egokituko zaio:

1.– Jaurlaritzaren Dekretoak.

2.– Jaurlaritza-Sailen Aginduak.

60garren. Atala

Honako hauek joango dira Dekreto gisa:

1.– Guztizko arduralaritza-aginduak eta, hala behar izanez gero, Jaurlaritzaren erabakiak, azkeneko hauek Lehendakariak eta saloa dagokion Sailburuak izenpetzen dituztela.

2.– Lehendakariaren aginduak, berak berenez izenpetuta.

61garren. Atala

Sailek, Sailburuek izenpetutako aginduz egiteratuko dute araugintza-ahalmena.

62garren. Atala

Agintarauak ezingo dute zigorrik ezarri, ez lakarrik, ez zerga-bidezkoen besteko petxarik kendu, ez hoiere antzeko beste ordainpiderik jarri-ere. Diruzko zigorrik eta isunerik ere ezingo dute jarri, Legeak berariz horretarako baimena emandakoetan izan ezik.

63garren. Atala

Goragoko mailaren bateko aginduen aurkako Agintarauak, legearen indarrez erabat baliogabeko izango dira.

64garren. Atala

Agintarauak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, eta argitaratu eta hogeiegunera indarrean jarriko aurkako agindurik ez badago.

IV ATALBURUA

ARDURALARITZA-ERABAKIEZ

65garren. Atala

1.– Erabakimenaren jabe izan daitezzen Agintari eta Ihardutze-Sailek hartuko dituzte arduralaritza-erabakiak.

2.– Erabakiak, Jaurlaritzak, Lehendakariak edo ezein Jaurlaritzakidek hartutakoak direnean, arduralaritzaren guztizko agintzen modu berekoak izango dira.

66garren. Atala

Arduralaritza-erabakiek ezingo dute Agintarau batek ezarritakoa hautsi, hura mailaz berdina edo goragokoa bada ere.

67garren. Atala

Euskal Herriko Arduralaritzak eman ditzan arduralaritza-erabakiak, eta hoiere aurka sar daitezken goradeiak, Lege honek ezarritakoaren eta guztizko arduralaritza-bideen edo Elkarte Autonomiadunaren berarizkoen arauerako izango dira.

BEHIN-BEHINGO ERABAKIAK

Lehenengoa

Eusko Legebiltzarrak Autonomia-Elkarteko gozamen-saridunentzako araupideak onar ditzanerarte, Lege hau indarrean jarri ondoren bideak egin behar dituzten bizisariekiko

Indarrean dagoen testu konsolidatua

zehaztapidetzak Jaurlaritzako Ekonomia eta Herriogasun-Sailaren bitartez bideratuko dira Sail horrek. Lege honetan oharteman gabeko guztietan, ordezkatzeko lege gisa Erresumako Gozamen-Saridunentzat indarrean dauden Legeak darabiltzala.

Bigarrena

1.– Sailburu, Sailburuorde edo Artezkari izan ez, bere lana Lehendakaritzan edo Jaurlaritzako Sailetan egin, eta Lehendakariak edo Sailburuek izendatutako gainontzeko guztien legezko egoera, indarrean dauden legeen arauera egindako arduralaritzakurapenen bidez arauzkotuko da.

2.– Berarizko moduz, aurreko atalean aipatu eta orain teknika hutsezko zerbitzua egiten dihardutenen zerbitzualdia lehen-mailako merezimendu izango da, horretazko Legeak ezarri dezan moduan, legezko herrilana iristeko.

Hirugarrena

Lege honen 37garren Atalak diona Eusko Kontseilu Nagusiko Kontseilari izandakoekin ere erabilgarri izango da; hor aipatzen diren hoientzako diru-eskuraketak, bere agintealdia bukatu zenean guztira jasotzen zuten ordaina izango du goi-muga.

AZKEN-ERABAKIAK

Lehenengoa

Jaurlaritzaren barne-Araudia eta lege hau egiteratzeak eska ditzan erabaki guztiak hartzeko esku ematen zaio Jaurlaritzari.

Bigarrena

Lege hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedineko egunean bertan jarriko da indarrean.